

Turismo-gastua Euskal AEko BPGren % 6,4 izan da 2019an

2019an, turismo-gastua hazi egin zen Euskal AEko hiru lurraldeetan, eta BPGren % 8ra iritsi zen Gipuzkoan

2019an, Euskal AEko turismo-gastua % 3,9 igo zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, lehen aldiz 5.000 milioi eurotik gorakoa izan zen, eta BPGren % 6,4ra iritsi zen, Eustaten datuen arabera.

Turismo-gastua bi agregatuk dute osatzen: *Turismo hartzailea*, zeinek atzeritik eta Espainiako gainerako lekuetatik datozen bidaiariek Euskal AEn egiten duten turismo-gastua barne hartzen baitu; eta *Turismoaren beste osagai batzuk* deritzona, zeina lortzen baita batuz Euskal AEko egoiliarrek Euskal AEn egiten duten turismo-gastua (kanpora bidaiatu aurretik jatorrian egiten duten gastua barne), Administrazio publikoek turismoarekin lotutako programetan eginiko gastua eta turismoaren berezko jardueradarren Kapital Eraketa Gordina.

Turismo hartzaileak 2019ko turismo-gastuaren % 59,8 jarri du, eta 2010-2019 aldian ehuneko 7,8 puntu gehitu da. Horren arrazoia izan da aldi horretan % 60,8ko hazkundea metatu duela, eta *Turismoaren beste osagai batzuen* hazkundea, berriz, % 17,2koa izan dela.

Turismoak euskal ekonomiari egindako ekarpena. BPGaren (m.p.) gaineko balio absolutua (milaka euro) eta ehunekoa. Uneko prezioak. 2010-2019(a)

	2010	2015	2016	2017	2018	2019(a)
Turismoko gastua, guztira	3.632.144	4.355.670	4.632.752	4.766.068	4.887.607	5.080.066
Turismo hartzailea	1.887.771	2.484.045	2.732.718	2.820.536	2.932.810	3.036.341
Turismoaren beste osagai batzuk	1.744.373	1.871.625	1.900.034	1.945.532	1.954.797	2.043.725
Turismoko gastua, guztira (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Turismo hartzailea	52,0	57,0	59,0	59,2	60,0	59,8
Turismoaren beste osagai batzuk	48,0	43,0	41,0	40,8	40,0	40,2
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa						
Turismoko gastua, guztira	5,4	6,3	6,5	6,4	6,3	6,4
Turismo hartzailea	2,8	3,6	3,8	3,8	3,8	3,8
Turismoaren beste osagai batzuk	2,6	2,7	2,7	2,6	2,5	2,6

Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea


Oinarria 2015

(a) Aurrerapena

Turismoaren Kontu Satelitean bildutako informazioari esker, Euskal AEko *Turismo-saldoa* kalkula daiteke, hau da, *Turismo hartzailearen* eta *Turismo igorlearen* arteko aldea. Azken hori da Euskal AEko egoiliarrek Euskal AEtik kanpo egiten dituzten turismoko bidaietan egiten duten gastua.

Euskal AEko turismo-saldoa negatiboa da, eta 1.702 milioi eurora iritsi da 2019an, 2010. eta 2011. urteetako zifren antzekoa, eta 2010-2019 aldiko minimoa 2016an izan zen, 1.232 milioi euro.

Euskal AEko turismo-fluxuen saldoa



Euskal AEko hiru lurraldeetan turismo-gastuak gora egiten jarraitzen du

2019an turismo-gastuak gora egin zuen hiru lurraldeetan, baina erritmo desberdinetan. Gipuzkoan hazi zen gehien gastua, % 5,6; Bizkaian % 3,0 eta Araban % 2,1. Bilakaera horren arabera, Gipuzkoako tokia Euskal AEko turismo-gastuan zazpi hamarren handitu zen, % 42,2ra iritsiz; Bizkaikoaren antzekoa izan zen (% 44,5), eta Arabak % 13,3ko ekarpena egin zuen.

Turismoak lurralde bakoitzeko ekonomian duen garrantziari dagokionez, handiagoa da hura Gipuzkoan (BPGren % 8,0) eta txikiagoa Bizkaian (% 5,6) eta Araban (% 5,4).

Turismoak euskal ekonomiari egindako ekarpena, lurralde historikoaren eta urtearen arabera. BPGaren (m.p.) gainerako balio absolutua (milaka euro) eta ehunekoa. Uneko prezioak . 2010-2019(a)

	2010	2015	2016	2017	2018	2019(a)
TURISMOKO GASTUA						
Euskal AE	3.632.144	4.355.670	4.632.752	4.766.068	4.887.607	5.080.066
Araba/Álava	508.500	612.728	642.301	655.759	662.360	676.211
Bizkaia	1.579.983	1.928.156	2.050.133	2.140.156	2.196.957	2.261.866
Gipuzkoa	1.543.661	1.814.786	1.940.318	1.970.153	2.028.290	2.141.989
EHUNEKOAK						
Euskal AE	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Araba/Álava	14,0	14,1	13,9	13,8	13,6	13,3
Bizkaia	43,5	44,3	44,2	44,9	44,9	44,5
Gipuzkoa	42,5	41,6	41,9	41,3	41,5	42,2
BPGaren (m.p.) gainerako ehunekoa						
Euskal AE	5,4	6,3	6,5	6,4	6,3	6,4
Araba/Álava	4,8	5,5	5,5	5,5	5,4	5,4
Bizkaia	4,6	5,6	5,7	5,7	5,7	5,6
Gipuzkoa	7,0	8,0	8,2	8,1	7,9	8,0

Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea

2015 Oinarria

(a) Aurrerapena

Oharra: Turismoaren kontu sateliteko datuak berrikusi eta eguneratu dira. Serie berria, 2010az geroztikoa, Eustaten Datu-bankuan dago eskuragarri.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62